

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Sarrigurengo institutu berriaren eraikitze-lanen lizitazio iragarkia argitaratu da

*Eskaintzak, gehienez 5,4 milioi eurokoak, heldu den urriaren 3a baino lehen aurkeztu behar dira*

Asteazkena, 2018.eko irailak 12

Hezkuntza departamentuak gaur asteazkenarekin argitaratu du Sarrigureneco derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutuaren lanen lehen fasea kontratatzeko lizitazio eskaintza. [Iragarkia](#) Nafarroako Gobernuko kontratazio atarian dago ikusgai.

Sarrigurengo institutu berria izanen denak Aurrera pausua eman du gaur asteazkenarekin: Hezkuntza departamentuak kontratazio atarian argitaratu baitu lehen fasearen lanen kontratazioan interesa izan dezaketen enpresentzako iragarkia. Eraikitze lanak 5.404.704,58 eurotan (BEZa barne) atera dira lizitazio lehiaketara. Iragarkiak zehazten duen moduan, esleitzeko irizpidea kalitatearen eta kostearen arteko orekan oinarrituko da. Bai eta Hezkuntzako Azpiegitura Zerbitzuko lan-ildoari erantzutean ere: autosufizientzia eta energiaren eraginkortasuna lehenestea hezkuntza-eraikin berrietan.

Departamentuak aurreratu bezala, eta iragan abuztuaren 22an lortutako gobernu-akordioari esker, 2018ko azken hiruhilekoan eraikitze-lanekin hastea da aurreikuspena eta 2019-20 ikasturte hasieran bukatuta egonen lirake. Aurrez, interesa ukan dezaketen eraikitze-enpresek euren proposamena igortzeko urriaren 3ra arteko epea dute. Juan José Peralta Gracia eta Andrés Ayesa Pascual arkitektoek diseinaturiko proiektuan oinarritu beharko dute enpresek euren eskaintzak.

Sarrigurenen, eta Eguesibar-en orokorrean, dagoen hezkuntza eskariari erantzun asmo du zentro berriak. Lehen eraikitze-fasean horregatik DBHko beharrei erantzuteko 6 lerro sartuko dira (24 ikastalde). Horretaz gain, ikasteko ezinbestekoak diren instalakuntzak ere aurreikusi dira: liburutegia, gela-bereziak (musika, informatika, plastika, laborategia, etab.), kirol jardueretarako azpiegiturak (soinketa-lekua, aldagelak), irakasleentzako gelak eta espazio orokorrak (biltegiak, bulegoak, garbiketa-gelak, etab.). Ondorengo bigarren fasean Batxilergo ikasleak hartzeko eraikitze-lanari ekinen zaio.



Sarrigurengo institutu berriaren aurre-diseinua. 8.423,70 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko du.

Ikastetxe berria Elizmendi kalean egonen da kokaturik eta osotara 8.423,70 metro koadroko azalera hartuko du.